

Kide preziatuak:

Aurtengo irailean Donostian artisautza azoka antolatuko dugu eta haren berri bidaltzen dizuegu interesgarria izango zaizuelakoan.

Euskal jaiak

Kokalekua: Alderdi Eder.

Datak: Abuztuaren 30etik Irailaren 10ra.

Ordutegia: 11:30tik 14:30ra eta 16:30tik 21:00ak arte.

Igandeak 16:30tik 21:00etara.

Azpiegitura: Melaminazko standak, pertsianarekin.

Stand bakoitzak korrante-hargunea izango du (gehienezko potentzia: 1.000 W).

Gauetan zaintza egongo da eta hedabideetan publizitatea egingo da.

Standa eskatzeko **ekainaren 30a baino lehen** honako agiriak bidali beharko dira feriaeuskaljaiak@lurkolektiboa.org helbide elektronikora:

- Eskaera-orria, behar bezala beteta (webgunean zuzenean bete, paperean ez).
- Artisaua zarela egiaztatzeko frogagiria.
- Enpresaren IFZ eta standean egongo den tailerreko **artisauaren** NA.
- Autonomoen azken hiru ordainagiriak.
- Lantegiaren ibilbidea.
- Lanketa-tekniken azalpen laburra.
- Piezen gutxienerako prezioa eta batez bestekoa.
- Erakusgai egongo diren piezen 6 argazki, horietako bi stand osoarenak.
- Produktu kosmetikoen kasuan dagozkien osasun ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Dokumenturen bat faltaz gero, eskaera ez da hautaketa-prozesuan aintzat hartuko eta baztertua izango da.

PREZIOA BEZ BARNE:

3 x2 m-ko standak.....582,00 €

4x2 m-ko standak.....770,00 €

Aldameneko persiana eskatu daiteke, 125 euroko balioarekin. Aukera mugatua dago eta ezeztatua izan daiteke tailerren bati.

PARTEARTZE BALDINTZAK:

Standak LUR Kolektiboak ezarritako ordutegian irekita egon beharko dute eta arrazoi justifikatu batengatik izan ezean ezingo dira hutsik egon. Edonola ere, stand-a, arrazoi justifikatu batengatik hutsik utzi beharko balitz, alde zuzenetik jakinarazi beharko da. Standak tailerreko kide batek zaindua egon beharko du, behar bezala akreditaturik.

Erakusgai jarriko den materiala eskaeran aurkeztutakoarekin bat etorriko da. Hala izan ezean, Lur Kolektiboak bere gain hartzen du standa azokatik kendu edo eskaerarekin bat ez datozen piezak baztertzeko eskubidea.

Muntaketa bidez eginiko piezak ezingo dira salgai jarri ez eta artisauaren lantegian bertan sortu ez diren artikulak ere.

Bitxigintza eta urrengintzako standetan ezik mota horretako produktuak erakusgai jarri gero ezingo da inolaz ere erakusketaren % 20a gainditu.

Standa erabat garbi eta inongo kalterik gabe utzi beharko da; hartu denean bezalako baldintzetan itzuli beharko delarik.

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko galduak, hondatutako edota lapurtutako objektuen ardura.

Ezinbesteak bultzatuta azoka itxi beharko balitz, Lur kolektiboa ez du izango ixte horrek artisauari ekar diezazkiekeen galeren erantzukizunik.

Gutun hau jasotzeak ez du esan nahi azokarako hautatu zaitugunik. Ezinbestekoa da onarpenaren jakinarazpen gutuna jasotzea.

Argibiderik behar izanez gero, telefono-zenbaki hauetara deitu dezakezu: 673679620 (Marian 9:00etatik 13:00etara) eta 633 330 586 (Marta 16etatik 20etara), edo idatzi helbide honetara: lurkolektiboa@gmail.com

Agur bero bat jaso ezazue,

Lur kolektiboa.